



## **Euskal kultur erakundeak**

« **Kultura politika publikoen** »

### **Proiektu arduradun bat bilatzen du**

**Lanpostuaren helburua :** Euskal kulturaren sarraraztea politika publiko ezberdinetan (herriko etxe eta hiri-elkargoetan, erakunde publikoetan, kolektibitateek kudeatzen dituzten kultura egituretan, etabar).

#### **Eginbeharrak :**

- Euskal kulturaren alorrean, tokiko kolektibitateen laguntzea, kultura programen edo esku-hartze eskemen finkatzeko, lantzeko eta obratzeko, bai eta ere ahalbide-planoak aztertzeko ;
- Erakundeetako partaideekin lan egitea (DRAC, Kontseilu Orokorra, Eskualdeko Kontseilua, Eusko Jaurlaritzza, Nafarroako Gobernua, diputazioak, etabar), gogoeta, estrategia, eta politika publikoeri buruz, euskal kultura gehiago kondutan hartua izan dadin.

Lankide honek, Euskal kultur erakundeko zuzendariaren ardurapean lan egingen du.

#### **Galdegin baldintzak :**

- kultura politika publikoen kudeaketa eta administrazioen ongi ezagutzea (erakunde ezberdinen ibilmoldeak eta gaitasunak) ;
- Sorkuntza eta hedapen artistikoen bai eta ere kultura ekonomikoen (liburuak, entzun-ikusezkoak, etabar) ezagutza ;
- Euskal kulturaren jakintza ; ekimen eta proposamen iturri izaitea ; komunikatzeko eta negoziatzeko ahal haundien ukaitea ; administrazio eta kultura dozierren egiteko eta segitzeko jakinduriaren ukaitea ; informatikaren menperatzea.

Lan erreferentziak hautagaitza-gutunari lotu beharko dira.

#### **Hizkuntzak :**

- Euskara eta frantsesa ;
- Espainola eta ingelesa arras preziatuak.

**Autoaren gidatzeko** baimena derrigorrezkoa.

**Formakuntza :** Bac + 5, eta/edo lan esperientzia adierazgarria politika publikoetan.

**Lan baldintzak :**

CDD 18 hilabete, ondotik CDI-ra pasatzeko xedearekin. Denbora osoz.  
Hilabetesaria – koadro mailakoa - lan esperientziaren arabera finkatua izanen da,  
“Animazioa »-ren hitzarmen kolektiboari jarraikiz).

**Lanpostua :** 2010eko urriaren 1ean hasteko.

Bidal itzazue motibazio gutuna + CVa

**2010eko agorrilaren 16a aitzin**  
helbide honetara :

Euskal Kultur erakundea  
Château Lota jauregia – BP 6  
64480 Uztaritze/Ustaritz

Gehiagoko xehetasunentzat lanpostu honi buruz :  
**05 59 93 25 25**